


DROGETENitturri

ERMUA ETA MALLABIKO ALDIZKARIA


• 125. ALEA • 2005EKO EKAINA



Ermua margotzen

Ermuko txokoak artisten ikuspuntutik

Mugartea Pintura Elkartek Haize Zabaleko pintura lehiaketaren XII. edizioa antolatu zuen ekainaren 12an. Ermuko eta Ermutik kanpo etorritako artista ezberdinek, euren pinturaz gozatzeko aukera eskaini zioten herriari. Fernando Garcia, Mugarteako kidearen esanetan, "Lehiaketaren helburua, alde batetik jendearentzat ikuskizuma izan daitekeen ekitaldia antolatzea da. Alegia, gauza politak eta artisten lana herritarrei ikusteko aukera ematea eta bestalde, pintura, jende gaztearengan sustatzea da". 60 lagun inguruk hartu zuen parte XII.edizioan.



Helduen modalitatean aurkeztu ziren 20 lagunetatik, 6 ermuarrak ziren. Umeen modalitatean aldiz, gehienak bertokoak izan ziren, nahiz eta bakarren bat kanpotik etorri zen.

Aurten eguraldiak lagundu izan badu ere, Fernandok ez dauka zalantzarik eguraldi eskasarekin pinturen kalitatea bera izango litzatekeela baieztatzerako orduan, "eguraldia lagungarria da, aukera gehiago eskaintzen ditu jendea margotzen ari direnengana gerturatzeko eta kalean egiten denez, erosoagoa da, baina pinturen kalitatean ez du eraginik, norberak erabiltzen dituen forma eta koloretan dago gakoa".

Izelaieta kalea margotuena

Ermuko edozein leku bihurtu daiteke artelana mihisearen gainean. Parte hartzen duten gehienak herria ezagutzen dute edo bestela, egun batzuk lehenago bertara etorri eta lekua aukeratzeko. Beste batzuk ordea, margotuko duten hori egun berean erabakitzen dute. Zalantzarik gabe,



herriko alde zaharra da gehien margotzen dena, Fernandok aitortu digunez. Izelaieta kalea da margotuena: "Izelaietak aukera anitz ematen ditu, koloreekin jokatzeko eta etxeen formak aldatzeko. Hala ere, eraikuntza berriek ere formekin jokatzeko aukera eskaintzen dute eta kuadroa eragarkargarri bihurtzeko. Norberak bere kolore eta formak ematen dizkio kuadroari, norbere nortasuna agertuz", gaineratzen du Fernandok. Artista ermuarrak 30 urtetik gora daramatza margotzen eta 100 kuadro inguru ditu. Aurtengo lehiaketako sari lokala berak eraman du

nagusien modalitatean. Sari nagusia, iazko irabazle berarentzat izan da, Trekurentzat. Bigarren saria Juan Guerrak lortu du.

Gazteen artean, 5 sari banatu dira adin tarte ezberdinak kontuan hartuz. Danel Gorrixtategi, Natalia Arrizabalaga, Maider Delgado, June Argüello eta Iranzu Villalba izan dira aurtengo irabazleak.

Aurtengo lan irabazlea Mugartek urtero ateratzen duen errifan zozketatuko da. Iazko kuadro irabazlea ere, aurten berriz zozketatuko da iaz ez zelako zenbaki sariduna agertu.

KUS KUS

kafe antzokia

Ermuko leku aproposena

Komentukua z/g



Eguneroko zerbitzua:
ERMUA, EIBAR, MALLABIA,
ZALDIBAR, BERRIZ, BILBO

Zama guztientzako eskualdeko zerbitzua
ERANDIO GARRAIOAK

Bulegoa: Zeharkalea, 27 • (943) 17 03 14 •
ERMUA

TXALAPARTA

TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

943172665 **ERMUA**



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*